

**“LAN GAUA” IBILALDIA 2023
ETXALARKO BENTA**

**BIDASOAKO KONTRABANDISTAK
APIRILAK 22**

Etxalarko Benta – Mizpira Lepoa – Meaka – Etxalar – Sta Krutz - Benta

DISTANTZIA: 11,440 km / DENBORA: 3h. 30´ / DESNIBELA: 400 m.

Ongi etorri “LAN GAUA” 8. ediziora!! Kontrabandoan (“gau lana”) aritutako pertsonengandik testigantza zuzena izatea eta hainbat pasadizo ezagutzea ditugu helburu nagusiak. Aurtengo protagonista Etxalarko Santi Elizagoien dugu, aurreko ekitaldietan lagundu duena; halaxe, Lesakako Lurrizti baserriko Pedro Maritorea eta Rosa Arburua ikerlari bidasoarraren ekarpenak ere izanen ditugu.



Etxalarko Benta, herriko bidegurutzean kokatua, ostalaritzako gun e tradizioala.

AHOLKUAK – KONTUTAN HARTU BEHARREKOAK

- **Materiala:** mendiko arropa eta botak, eta gau ez ibiltzeko argia (burukoa, hobe). Bidearen erdian geldiune bat izanen da, zerbait jateko, norberak ekarria.
- **Ixiltasuna:** taldean ibili arren, ixilik ibiltzea eskatzen da, kontrabandoaren giroan murgildu eta sensazioak hobeto ulertzeko.
- **Erritmoa:** erritmo onean ibiliko gara (ia 12 km, 3 ordutan), baina ez korrika. Erne ibili bidexka eta tarte irristakorretan. Kasu egin antolatzaileen indikazioei.
- **Elkarrekin:** partaideen seguritatea hobeto bermatu ahal izateko, taldean eta elkarrekin ibiliko gara. Kasu egin antolatzaileen indikazioei.
- **Laguntza Puntua:** norbaitek laguntza edo ibilbidea bukatu baino lehen utzi behar badu, Meakan (5,340 p.k.an) eta Etxalarren (7,315 p.k.an) 4x4 kotxe bat izanen da.
- **Pasadizoen azalpenak:** Azalpenak une eta leku puntualetan eta euskaraz izanen dira; protagonistek ez dute bide osoa egingen. Texto lagungarri hau prestatu dugu.

IBILBIDEA, PAUSUZ PAUSU.

0,000 km (0h.) ETXALARKO BENTA (60 m.). Etxalarko bidegurutzean kokatua, NA-1210 errepidean. Ostatua, jatetxea eta hotela. Lesaka alderuntz abiatu eta errepide berriaren zubi azpian dagoen aparkalekuan Bidasoa ibaia ikusiko da, Latsabea etxea zegoen lekuan. Errepide bazterretik segituz...



Bidasoa ibaia Latsabea etxea zegoen lekutik; bertze aldean, Lesakako Lurrizti baserria.



Lurrizti baserriko Pedro Maritorea (ezk) eta Santi Elizagoien; atzean, Etxalarko Benta

Bidasoa zeharkatzea. Egun Etxalarko Benta ondoan dagoen N-121A errepidearen zubi berriaren lekuan Latsabea izeneko etxea zegoen. Bertatik kontrolatzen zuten Irun edo Iruñeako autobusa, ea “brigadillak” iristen ziren (paisanoz jantzitako poliziak, bertako guardia zibilen lana kontrolatzen zuten eta askoz zorrotzagoak izaten ziren). Halaxe, etxe honetatik gertu, eta Bidasoa ibaiaren tarte zabala eta lasaia baliatuz, paketeak oinez pasatzen zituzten. Baina ibaiak ur handia ekartzen bazuen, kanabera batekin haria bota eta metalezko kable mehe batekin tirolina prestatzen zuten. Txalupa bat lotu eta bertan paketeak sartzen zituzten. Zer egin honetaz lesakarrak arduratzen ziren, horien artean Lurrizti baserrikoak.

0,780 km (0h. 10’). Zumeldi baserriko bidegurutzea . Errepidea utzi eta eskuinetik, ubidearen azpitik eta bide asfaltatuan barna, Zumeldiko errekan gora.

Mugaz gaindiko portugaldarren pasa: Paketez gain, pertsonak ere muga gaindituz pasa izan dituzte. Bigarren mundu gudan Cométe sarea dugu aipagarri. Guda zibila inguruan, errepublikarrek, politikariek... pasatzaileen laguntzaz ihes egin zuten. Beranduago, ixilpean milaka portugaldar mugaz bestaldera pasa zituzten (Rosa Arburua ikerlariaren ekarpena).

2,350 km (40´) – Zumeldi baserria (175 m.). Asfaltoa bukatu eta ezkerretara jo, etxe berri baten ondotik, bidea estutuz doa.

2,950 km (55´) – Mizpirako lepoa (207 m.), zabala eta GRT “Bidasoa”ren pasagunea. Eskuin aldera igo, mendi bizkar zabaletik eta bertako tontorretik (292 m) pasatuz. Zurgaietako lepora (279 m) iritsita, mendi bizkarra utzi eta eskuineko mendi magaletik segitu, hariztian barna. Bide zelaia.

Makina handi bat Lesakako fabrikari. Gertaera honen dokumentaziorik ez badago ere, Lesakako “Laminaciones” lantegian 60. hamarkadaren bukaeran kontrabandoz pasatutako makina handi bat hainbat urtetan martxan egon zela azaldu digu Santi Elizagoienek. Makina zatika ekarri zuten traktorez Saratik Murritzen borda aldera eta handik Etxalarren zegoen zerrategiko kableekin herriraino jeitsi; zatiak kamionetan kargatu eta Lesakara eraman zituzten, bertan montatzeko. Gertaera honek kontrabandoan bititako kontraesana erakusten du: jarduera ilegala zen, bai, baina zenbait kasutan eta ekonomiaren onurarako halako permisibitatea izaten zen.



Lesakako “Laminaciones” lantegia eta, orain dela ia 65 urte egin zen inaugurazio ekitaldiaren irudia.

5,340 km (1h 30´). Meakako lepoa (325 m.), eta Lurriztiederra auzoko baserriak (**ERNE: LAGUNTZA KOTXEA**). Ezkerretik jeitsi, bide asfaltatutik eta, ia 400 metro aurrerago eta ardi borda bat pasa eta gero, eskuineko bidexkatik segitu, bidel zabal bat aurkitu arte. Bertatik Lurriztiederra auzoko bide nagusi zementatura ailegatu eta bertatik jeitsi, Etxalar begi bistan.

Bide sarea. Paketeak mugatik pasatzea eta Irun, Donostia, Iruñea... bezelako hirietara eramatea zen helburu nagusia, handik banaketa egitea errezagoa baitzen. Bide eta bidexken sarea handia zen, egoeraren arabera erabiltzeko. Meakako lepoak eta inguruak ederki islatzen dute egoera hori: batzutan bide zuzena egiten zuten frontieratik paketeak Lesakako mugaraino eramateko, Bidasoko ur bazterretan. Bertze batzutan, aldiz, karabineroen kontrola saihesteko edo bertze arrazoiengatik, Etxalarren barna egin behar izaten zuten.



Meakako lepoko inguruko ardiborda eta bidexka

6,565 km (1h 45') – Bifurkazioa. Bide nagusia utzi eta ezkerretara jeitsi, bide zabaletik eta zigizaga eginez. Herriko lehenengo etxeak ikusten dira. Tarte batean logia aurkitzen ahal dugu.

7,315 km (2h 05') – ETXALAR (100 m.), Arrosea etxea eta Tximista erreka. Zubia zeharkatu gabe, eskuinera jo, herrigunea ezker aldean utziz, bide zabal eta asfaltatua. Larraburua Etxera ailegatu eta, errepide bazterretik 150 metro egin ondoren, herriko sarreran dagoen aparkalekura iritsi. Bertan landan barna doan bide zabal eta eroso segitu, hasieran etxe berrien artean eta belagien artean artean geroxeago.

8,780 km (2h 30') – Santa Krutz ermita (95 m.). Tximista erreka ondoan. Harrizko zubia zeharkatu eta ezkerretara segitu, bide asfaltatutik. Ia 150 metro aurrerago, **bifurkazioa:** ezkerreko bide nagusia utzi (Urritzokieta auzoko bide asfaltatua) eta **eskuineko bidexkatik** igo, Etxalarko errepidera ailegatuz (9,030 km). Bertatik segitu, Urritzokieta Auzoko bidegurutzetik pasatuz (10,100 km), Etxalarko Bentaraino ailegatuz (GUZTIRA: 11,440 km).

Kontrabandoaren bukaera?? . Mugen kontrola estutzeak eta bereziki prezioen diferentzia ttipitzeak Bidasoladeko kontrabandoaren gainbehera eragin zuten, ez baitzuen merezi holako arriskua hartzeak. Baina hori asumitzeko prest zeudenak ere baziren, horien artean Santi Elizagoien: orduan hasi zituen bere bidaiak Suitza aldera, handik tabakoa eta puruak ekartzeko. Frantzia zeharkatu eta, poliziaren kontrolak sahiesteko, Alemanian barna sartzen ziren. Hango bazterrak eta hizkuntza ezagutu gabe, tabakoa kargatu eta errepide txikietan barna berriz Frantzia zeharkatu, batzutan gendarmeengatik ihesiz. Paketeak Urritzokieta auzoko bidegurutzean gordetzen zituzten, ubide ondoko zokoan.

11,440 km (3h. 30'). ETXALARKO BENTA (60 m.). Ibilbidearen bukaera.